

Felix Izagirren sasoi beteko Beckham

"Felix Izagirre Garate zeharbidea". Plazatik Erdikokalera juan nahi izan ezkerro, handik pasau biharra besterik ez dago, "Herreroneko" eskilarak bajau ostian. Kale horren alde bateko etxian jaixo eta parekora ezkondu zan puntarengo palista hau; kale gitxi izango dira hain egoki izendautakuak.

Erdikokaleko "Eskolaneko" etxian jaixo zan 1903ko ekainaren 11an. Francisco aitxa gizon irakurria eta jakintsua zan, Eusko Trenbideetako zerbitzu elektrikoan zuzendari eta sasoi baten alkate. Eskolastika ama -hortik gatzizena-, piano-jolea zen eta andra-gizonok euren 7 seme-alabei estudixuak emotiaren aldekuak izan ziran. Felixek baiña argi izan ekan bera pelotari izatia nahi ebalta eta halan gogoratu be eitzen dau Tomas anai gaztenak: "Gure aitxak ez eban nahi pelotarixa izan deixian, baiña gure anaia rebeldia zan eta terko jarri ta 'bera pelotari ta bera pelotari'. Aitxak hartu eban lehelengotan disgusto haundixa itxuria; itzelak ein zitxuan konbenzitzeko, baiña alperrik!". Bilboko "Euskel-Jai"n debutau eban,

1922ko otsailian eta aitxaren bedeinkaziño guztixekin: "Gero semiaren forofo-rik haundiña zan; Bilboko "Euskalduna"n aitxandako sarrera bat palkuan emon zotsien eta trenian faten zan ikustera" kontatzen dosku Tomasek.

Danera ona

Eskuz hasi zan lehelengotan, baiña eskuok errespon- didu ez eta modalitatez aldatu eban. "Orduan ez zan oingo moduan, tapau eitxen dabela esparadrapuakin, defentsak ipintzeko. Gure anaiak ezin eban karreraik ein bere eskuokin ta remon- tia edo palia, zein hartu ez ekixala egon zan; bardin zan, ha pelotari izateko jai- xua zan ta danera moldauko zan" diñosku Tomasek. Eta hori da orduko kroniketan jasota datorrena: aurrelari zein atzelari moduan, ezke- rrakin nahiz eskumiakin, pe-



Felix eta Juanita eztei-bidaiari. Sevillan, 1930ean.

lota guztixak harrapatzen zitxuala eta frontoietako pelotaririk txalotu eta esti- mauena izan zala.

Ez bakarrik ikusliendako; orduko pelotarixen esane- tan, Felix Izagirre izan da egon danik eta palistarik onena, konpletuena. Bere kontrarixuen akorduz, "Hu- rakan baten bestekua zan, zestalarixak be txarto ibilli- ko ziran hari aurre eitxeko", hain zan indartsua eta tantu eitxaillia, ametralladora ba- tekin konparatzen ebela. Honek berbokin erretrata- tzen dau kazetari batek 1939an: "El pelotari palista que más subyuga, que en mayor graduación eleva el entusiasmo de los públicos, que más enardece y apasio- na por su potentísimo jue- go, por su indomable brava- ra, por su coraje, entusias- mo y asombrosa vitalidad es este fenomenal delantero de Ermua, a quien mañana

admiraremos en el Moderno en partido excepcional y con motivo de su reaparición".

Izagirre I moduan jokatu baeban be, ugarixak dira ha- ri egokitxutako gatzizenak: "Txekorra", "El Tigre", "El toro de Ermua", "Frailia", "Asto", "Tarzan"... gitxi lako gizon indartsu eta gihartsua izatiaren erakusle ixa da- nak. Halantxek ekarri dau Tomasek akordura: "Dana zan muskulua, demasa muti- la, zabala barritz... Esku-er- pe batzuk zitxuan! Pentsai- zu, behin Paulino Uzkudun boxealari famatua, Peso Pe- sadoko Munduko txapela bi- rritxan irabazteketan egon zan gizona presentau niñuan ta esan zotan: 'Pultsuan irabazi nauan bakarria zeure anaia izan da!'. Etarazuz kontuak, Peso Pesado bati pultsuan irabazi! Felix fue- raserie bat zan. Gaur egun, haren baten Beckamh edo Raul baten bestekua!".

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia TE eta INFUSIOETAN
- Tarta bereziak

• Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

943172665

ERMUA



Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona

Sobresalientia

Anekdotak soka amaibakua daka Tomasek anaiaren gain; Bartzelonan be alkarrekin bizi izaten 3 urte emon eben, bata jokatzeko eta gaztia estudixatzen. Tomasek Batxillerrian ditzuan sobresaliente bakar bixak, Felixek lortu sarrera bana eta haren partidu apoteosiko bat ikusten egondako katedratiko birenak dira. Sobresalientiak Tomasen izenian egon, baiña Felixenak izan merito guztixak!

1930eko irailaren 24an Juanita Solozabal Arriaga ermuarrarekin ezkondu zan; Luis Mari eta Fernando izan ziran andra-gizonok izanda-ko bi semiak.

Progresista zan ideologiaz, errepublikazale konbenzidua. Beti entzun izan dogu Ermuan errepublikano banaka batzuk euazela. Tomasek be halan ziurtatu dosku: *"Manuel Azañaren 'Acción Republicana' partidukuak ziran eta bost lagun besterik ez; kandidaturetan bosten izenak ipintzen ebezen ta botua be euren buruari emoten otsien. Gure anaia etorten zan eskusibamente Madriletik botua emotera. Lagun potentaren batek lagatako kotxe deskapotablian etorri bezperan, goixian botau eta arrasaldian Madrilera, partidua jokatzera".* Gizon dotoria zan, itxura edarre-

koa eta pelotarixa baiña zine-aktoria emoten ebala be irakurri izan dot. Lagunak errez eitxaillia, sinpatikua eta maila sozial altuko zein bajuko pertsonen egoten ekixana. Tomasen gogorapenei oratuta barriro: *"Lagun haundixak ein zitxuan. Orduan pelotxiak futbolak baiña kategorixa gehixao ekan. Katedratiko, bankero ta enpresarixoz guztixak batzen ziran han frontoian. Ritz hotelian afaldu ostian, smoking-akin eta Roll Royceetan faten ziran ikustera, andrazkuak traje-noxtiakin... Partidua amaitzerakuan, makiñatxo bidar etxeratutakua naz Roll Roycean, gure Felixek esan ikustera juandako bati ia gero eruango naben bueltan eta hantxe neu, señorito baten moduan, txoferrak txapelkadia ein urtetzeran eta pozik!"*.

Bere amestaderik kuriosuenetakua Yagüe generalakin, Francoren lagun pertsonalakin izandakua da, batez be kontuan izanda euren pentsatze modu desberdina. Felixek Burgosen frontoi bat altxatzeko lagundu zotsan bere garaixan eta urtietara, salaketa faltsu batekin Felixi greba baten parte hartu izana leporatzen zotsiela,

ezkutuan Burgosera Juan eta Yagüeri esker kartzela eta heriotza- zigor segurutik librau zan.

Sevilla, Madrid, Bartzelona, Valentzia, Donostia, Bilbo eta Mejikoko frontoietan jokatu ostian, Bilbon amaitxu eban bere ibilbidia 1950eko uztailaren 2xan. Aurrelarixa zan, baiña nagusitzen zozala, gerrixa zala eta arazo gehixao zitxuan eta atzelari modura parau zan, Jose Andres anaia bikotekide ebala. Espainiako Txapelak be irabazitxakuak dira bikote modura.

Bizimodu zaratsatu eta disdiratsuko gizon honek, heriotza apala eta ixilla izan eban. Urten eguerdixan lagunekin txikiteora, ondoezik sentidu eta "Banajoiak, ez naok ondo" esanda etxeratu zan Iluntzixa orduko hil zan, 71 urte beteta. 1975eko martxuaren 24a zan.

Plazako frontoiko frontisean bere irudi bat dago hormiari lotuta, ohorezko lekuan; sasoi baten izena be hantxe euki eban eta oin tirafonduen zuluak besterik ez da geratzen. Bateron bat arduratuko ete da haren izena barriro dagokixon lekuan ipintzen?

Estibalitz González

Juanita andriakin, 1955ian.



Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)

dakotaermua@hotmail.com



GURE
AMETSA

**Gure dantza
Zure dantza**

Gureametsataldea@hotmail.com



KIROL MEDIKUNTZA

indartu



**ERA GUZTIETAKO MUTUA
ETA ASEGURUEKIN
KONTZERTATUA**

ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONZIMENDU MEDIKOAK

- ODOL ATERATZE ZENTROA, EGUN BEREAN ERANTZUNA JASOZ
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK

Diputazio Etorbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16

Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net